

GAZTERIA. Euskal Herriko hainbat gazte elkarte eta taldek antolatu dute egitasmoa

Matxinatuen Korrikaldia antolatu dute «lege arrotzei intsumisioa» egiteko

Urriaren 6 eta 7an lau zutabe abiatuko dira, denak hilaren 19an Baionara ailegatzeko

Miren Imaz | DONOSTIA

Inposiziorik ez, Euskal Herriak intsumisioa, independentzia lelopean urriaren 6an Elorrión hasi eta 19an Baionan amaituko den Matxinatuen Korrikaldiaren berri eman zuten, Euskal Herriko hainbat gazte mugimenduren ordezkariak, atzo Donostian. «Intsumisioaren aldeko uholdea» izan nahi duen korrikaldia lau lekutatik abiatuko da: urriaren 6an Elorriotik, eta hurrengo egunean Tuteran, Atharratze eta Laudiotik. Zutabe bakoitzak, atzo esan zuten, egunero ibilbide bat egingo du «korrika, bizikletaz edo auto-karabanan», azken astean bat egingo dute Lapurdin, eta elkarrekin helduko dira hilaren 19an Baionara.

Iragan Munduko Pilota Txapelketan Frantziako selekzioarekin parte hartzeari uko egin zion Ellande Alfarok, EHEeko Koldo Gerrikagoitiak, Segiko Zigor Ruizek eta Ikasle Aertzaleak taldeko Alex Marañonek, Euskal Herriko arlo desberdinetan Espainiako eta Frantziako estatuekiko jarrera intsumitua hartu duten hainbat kide eta elkarrekin izenean hitz egin zuten atzoko prentsurrekoan, eta korrikaldiaren inguruan prestatutako ekimenak ezagutzera eman zituzten.

Urriaren 6tik 19ra bitartean Euskal Herri osoan zehar burutuko den korrikaldiak, Koldo Gerrikagoitiak azaldu zuenez, «intsumisioaren aldeko mugimenduen uholdea izan nahi du: euskaraz ez jakitearren euskaldunon eskubideak urratzen dituzten justizia espainiar eta frantsesari; irakaskuntza arrotzari; espainiar eta frantziar kirol selekzioei; espainiar sistema juridikoari; eta orokorrean Euskal Herria suntsitu nahi duten bi



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS
Matxinatuen Korrikaldiaren antolatzaileak, atzo Donostian egindako agerraldian.

estatu arrotzei intsumisioa egiten dieten mugimendu guztien aldeko uholdea».

Matxinatuen Korrikaldia antolatu duten gazte mugimendu hauek, era berean, urriaren 11n *Intsumisio Egun Nazionala* egitera deitu dute Euskal Herria «korrikaldiaren ereduia Euskal Herri osoko herrietara zabalduz», eta «txoko guztietan eta arlo guztietan egun berean intsumisioa bultzatuz».

«Euskal Herria suntsitu nahi duen legalitateari intsumisioa»

Intsumisioaren aldeko ekimena bultzatzen duten talde hauek aurkeztutako agiriak «Euskal Herriari salbuespen egoera bizi dela» adierazten du, eta «Espainiako eta Frantziako gobernuak euskal herritarro euskaldun

gisa dagozkigun eskubideetako bat bera ere ez dutela onartzen». «Espainiar eta frantziar legalitatearen horma inoiz baino argiago» ikusten dela diote, eta «legalitate» hori Euskal Herria suntsitzeko» eginda dagoela. Horri aurre egiteko «Euskal Herria askatuko duen legalitatea» aldarrikatzen dute, «eus-

kaldunok eraikiko duguna, eta euskal herritar oroaren eskubideak bermatuko dituen». Matxinatuen Korrikaldiaren antolatzaileen ustez, «nazio erakuntzari ekin behar diogu, lege arrotzei desobedituz, intsumituz», eta era berean «geure legedi propioa eraiki behar dugun».

LABURREAN

Yolanda Barcina berriro Iruñeko alkate izateko hautagai proposatu du UPNk

Maiatzeko hauteskundeetarako Yolanda Barcina proposatu du UPNko Batzorde Eragileak berriro Iruñeko alkate izateko hautagai. Erregionalistek uste dute Barcinaren lanari esker hiriburua «asko aldatzen eta modernizatzen» ari dela. Proposamena kontseilu politikoak berretsi beharko du. Barcinak 1999ko hauteskundeon ondortik hartu zuen alkatetza, UPNk ordu arte Nafarroako hiriburuan lortu zuen boto kopuru handiena eskuratuz. NUPeko Nutrizio eta Bromatologiako katedra du. 1996an sartu zen politikan erregionalistek Ingurumen kontseilaria izendatu zutenean eta gero Iruñeko alkate-tza eskuratu zuen.

Xabier Irastorza presoaren lagunak sei orduz atxilotu dituzte jendarmek

Frantziako Gradignan kartzelan dagoen Xabier Irastorza Dorransoro euskal preso agurtzera espetxe hartara hurbildu ziren sei lagunak, sei orduz egon behar izan zuten bertako jendar-

meen eskuetan, Etixerat-ek salatu duenez. Dorransoro estradizio eskaera baten zain dago, eta irundar preso politikoaren sei lagun bertara hurbildu ziren haren egoerarekin elkartasuna adieraztera. Kartzelaren harresian kokatu ziren sei lagunak, eta preso lehora atera bitartean oihuka hasi ziren. Etixerat-ek azaldu duenez, jendarmek agertu eta handik joateko agindu zieten. Identifikazio dokumentuak eskatu ondoren, Bordeleko komisariara eraman, eta sei orduz bertan eduki zituzten, atxiloturik.

Isolamendu zigorra ezarri diote Yeseriasen adingabeko zentroan

Madrilgo Yeserias adingabekoen zentroan dituzten lau euskal presoetako batek isolamendu zigorra jaso du, bertan dauden lau euskal herritarrek antolatutako ekimenetan batera parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzeagatik, Etixerat-ek azaldu duenez. Gaztea arrastaka eta eskuburdin jarrita eraman zuten ziegara, eta ondorioz, eskumuturrak handituak ditu. Etixerat-ek «adingabeko lau euskal presoaren eskubideak etengabe zapalduak direla» salatu du.

EUSKAL PRESOK

Barandalla berriro eraman dute Nafarroako Ospitalera

Erredakzioa | DONOSTIA

Bautista Barandalla euskal preso berriro eraman zuten atzo Nafarroako Ospitalera. Berriz hestee-tako butxadura izan deza-keela uste du Etixerat-ek. Barandallak, arratsaldeko 18:45ean, espetxeko tailerretan zegoela, sabeleko mina sentitu zuen eta segituan jakinarazi zien espetxeko agintariei. Horiek ambulantiari deitu, eta ospitalera eraman zuten.

Barandallak ultzeradun kolutisa du, gaitz larri eta sendaezina. Apirilean egin ebakuntza, ia heste lodia kendu zioten. Orduz geroztik, hainbat aldiz eraman dute erietxera hestee-tako butxadurekin. Abuztuan Zaragozako espetxetik Iruñekora eraman zuten.

Preso etxarriarren egoera salatzean, euskal presoak protestaldiak egiten ari dira. Soto del Real eta Aranjuezko kartzelatan txandakako gose greba egiten ari dira, Brevan asteburuero baraualdiak eta Martutenen txandakako itxialdia. Etixerat-ek salatu duenez, «nazka-nazka eginda gaude Barandalla kartzelatik erietxera eta erietxetik kartzelara darabilte ikusten». Politikariek eta agintariek ez dutela ezer egin salatu du Etixerat-ek.

ABADIÑOKO UDALA

IRAGARKIA

- 1.- Erakunde esleitzalea: Abadiño Udal.
- 2.- Kontratuaren helburua: Mendiako saneamentu sarea.
- 3.- Lana burutzeko epea: lau hilabete
- 4.- Tramitazioa: preminazkoa.
- 5.- Prozedura: irekia.
- 6.- Esleikera: enkantea.
- 7.- Enkante bidezko lehiaketaren oinarria: guztizko zenbatekoa, 594.642,17 euro, BEZ eta guzti.
- 8.- Eskubideak aurkezteko epea: arratsaldeko 14:00ak arte (zapatuetan 13:00ak arte), iragarki hau BAOan argitaratzen dan egunaren biharamurrik hasi eta hamahiru eguneko epean.
- 9.- Dokumentazioa: pleguan esaten dana.
- 10.- Kopia (proiektua eta plegua): Gráficas IZARRA, Arzubia kalea 10B, Abadiño.

ANUNCIO

- 1.- Entidad Adjudicadora: Ayuntamiento de Abadiño.
- 2.- Objeto del contrato: Red de Saneamiento de Mendiola.
- 3.- Plazo ejecución: cuatro meses.
- 4.- Tramitación: urgente.
- 5.- Procedimiento: abierto.
- 6.- Forma: subasta.
- 7.- Presupuesto base licitación: 594.642,17 euros, IVA incluido.
- 8.- Presentación de ofertas: hasta las 14 horas (sábados hasta las 13 h) y dentro de los trece días naturales a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en BOB.
- 9.- Documentación: la señalada en el Pliego.
- 10.- Copias (Pliegos y Proyecto): Gráficas IZARRA, Arzubia kalea 10B, Abadiño.

Abadiño, 2002eko irailaren 20an. ALKATEAK.